

EUSKERAZKO SENDA-JAKINDI IZEN-SAILLA (AZTERBIDEZ SAIAKETA)

Idazlea: Bizkai'ko Sendalari "EUSKERA TALDEA"

Laguntzailleak: ARABA eta BIZKAI'ko FORU-
-ALDUNDIak
BILBO ta BIZKAI'ko
AURREZKI-
-KUTXAK (Kultura-Sailak)

Urtea: 1984 udabarrian, 1985.

Zuzendaria: Jon ALBERDI ZILUAGA

Lankideak: Francisco ITURRIAGA ETXEBA-
RRIA (Kimi-zalea ta osagai-saltzaillea)
Jon HORMAZA BILBAO
Bizente ONDARRA AZURMENDI
Ricardo URIARTE RIO

Irarkola: Ellacuria LAB S. A.

Ona emen gure osagilleak euskerearen alde egiten daben lan sakon bat: Erabiltzen dabezan itz trebebede-koak eta sarritan irakurle zeientzat ulergaitzak euskeratu, iztegia eta euskerazko itzen azalpena egiñez.

Orain urte batzuk, 1982'an argitaratu eben A-B izkiai dagokien zerrendea eta orain C izkiari dagokiona eskuratu dogu. Asko poztuten gara arlo au aurre-ra eroateaz eta lan onetan lankide diran guztiai esker-rak emon eta zoriona opa datsegu.

Lenengoaren antzera, ale onek be itzaurretzu bat daroa. Lenengo alean bizkaieraz eta H barik etorren, oraingo au gipuzkoereagaz nastauta eta H batzuk be sartuta datorku, eta lengoa baiña zerbait oler-gaitxago dirudi.

Baiña liburuaren lana, itutzaille-lana da, lan aundia benetan eta ez egiteko erreza: Lenengo, jatorria ondo ulertu bear da, geienetan gerkerazko itzak aztertuta eta gero euskerazko itz egokiak aurkitu eta osotu eta onein jatorria azaldu. Azkenean datorren iztegi laburra be, oso egokia da.

Nire ustez itz batzutan erreztasunera geiago jo bear zan. Adibidez: Erderazko "Huesecillo" (ikusi "cadena" itzean) onelan euskeratzen da: *Exurxkadi*. Berba au ez da erreza iruntziteko, bai ostera *azurtxutegia* esan ba'litz edo gipuzkoeraz izan bear ba'dau *ezurtxotegia*, bizkaitarrak be errez ulertzekoa. Giputzak z geiegi aldatzen dabe x eta ez leiteke biurtu bear maitasun edo txikitasuna agertzeko baiño eta emen txikitasuna *xka* orregaz agertzen zan.

Baiña zertarako begiratu obetu leitekezan arazo txiki oneik? Bein eta barriro esan bear dot lan aundia ta txalogarria dala, naizta danean neuri atsegin izan ez. Zoriona barriro eta eskerrik beroenak!

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

